

Azaroaren 21ean

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGEA

Agurra

Kristo, diren guztien Erregea, gerta dakizuela bake eta salbamen eta Haren maitasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Liturgi-urteari amaiera emanez Kristo Erregearen jaia ospatzen dugu gaur. Bera da gure historiaren erdi-muina; Berarengana goaz, Bera dugu helmuga.

Gaur Bere mahaian biltzen gaitu, Bere artzain-jarrera, Bere zerbitzu gogoia, Bere maitasun gozua geure egin ditzagun. Eta egun batean, Berari leial jarraitzen saiatzen diren guztiak amaigabeko mahaian bilduko ditu zeruko erreinuan. Berari aintza eta gorespen!

Damu-otoitza

Gurutzea du Kristok Bere errege-aulkia. Berari begiratzuz, eska diezaiogun gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, gizaki guztien Sal**bat**zaile zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu guztiontzat gizatasun **ere**du zarena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, guztion bihotzak Zuregana era**kart**zen dituzuna.
Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 diren guztien Errege den zeure Seme maitea ezarri zenuen
 gauza guztien oinarri eta buru;
 egizu onbera, izaki guztiek, bekatuaren uztaipetik askaturik,
 Zu zerbitza zaitzatela beti eta goretsi.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitz da kristauon egitasmo nagusia jasotzen dituenena. Entzun dezagun arretaz, eta jakin dezagun Erreinua gureganatzea bihotz berriz bizitzea dela.

Lehenengo irakurgaia (Dn 7, 13-14)

Danielen Profezia liburutik

Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzen zuen.

Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

Erantzun-salmoa (Sal 93 [92], 1ab. 1c-2. 5)

Zu za - ra, Jau - na, gu-re Erre- ge.



- ✠. Errege da Jauna, **ospez** jantzia,
 Jauna indarrez jantzia eta **inguratua**! ✠.
- ✠. Sendo ezarria **dago** mundua,
 ez dago **koloka**.
 Zure tronua sendo ezarria dago betidan**nik**,
 betiko**a** zara Zu! ✠.
- ✠. Zure erabakiak fidag**arri** dira;
 zure etxea santutasunez eder, Jaun**a**,
 betiereko **egunetan**. ✠.

Bigarren irakurgaia (Ap 1, 5-8)

Apokalipsia liburutik

Grazia zuei eta bakea Jesu Kristoren partetik, testigu leiala, hilen arteko lehenengo piztua eta munduko erregeen buruzagia denaren partetik. Maite gaituenari eta bere odolaz geure bekatuetatik askatu gaituenari, Jainko bere Aitarentzat errege eta apaiz den herri egin gaituenari, aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Hara, hodei artean dator! Denek ikusiko dute, baita zulatu zutenek ere, eta lurreko leinu guztiek hileta-negarra egingo dute harengatik. Bai. Amen.

Hau dio Jainko Jaunak: «Ni naiz Alfa eta Omega, baden, bazen eta etortzekoa den hura, Ahalguztiduna».

Aleluia (Mk 11, 10)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

∞. Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrrena!
 Bedeinkatua datorren erreinua,
 gure aita Daviden erreinua! ∞.

Ebanjelioa (Jn 6, 24-35)**Homiliarako argibideak***Gauza erabakigarria*

Jesusen kontrako auzia, Jerusalemera etortzean, Pilako bizi ohi zen jauregian burutu zen segur aski. Han daude 30. urteko apirilaren goiz batean akusatu babesgabe bat, Jesus izenekoa, eta Erromako inperio-sistema boteretsuaren ordezkari bat.

Joanen ebanjelioak bien arteko hizketa dakar. Izatez, galdaketa bat baino gehiago, Jesusen hitzaldi bat dela ematen du, ebanjelariarentzat axola handiko diren gai batzuk argitzeko. Halako une batean, aldarrikapen ospetsu hau egin du Jesusek: «*Honetarako jaioa naiz ni eta honetarako etorria mundura: egiaren lekuko izatera. Egiarena den orok entzuten du nire ahotsa*».

Baieztapen honek Jesusen ibilbide profetikoa definitzen duen oinarritzko ezaugarria adierazten du: Jainkoaren egian bizitzeko Jesusek agertu duen gogoia. Jesusek, egia esan ez ezik, egia bilatzen

du, eta, soilik, bere seme-alaba guztientzat mundu gizakoiago bat nahi duen Jainkoaren egia da.

Horregatik hitz egiten du Jesusek aginpidez, baina sasi-agintekeriarik gabe. Egiati mintzo da, baina dogmatismorik gabe. Ez da mintzo beren egia ezarri nahi izaten duten fanatikoak bezala. Ezta, hartan sinetsi gabe, derrigor defendatzen duten funtzionarioak bezala ere. Ez da sentitzen Jesus egiaren zaindari, baizik lekuko.

Jesusek ez du hartu Jainkoaren egia propagandatzat. Ez du hartu bere probetxurako, baizik eta behartsuen defentsarako. Ezin jasan du gezurra edo zuzengabekeria ezkutatzea. Ezin jasan du manipulazioa. Jesus, horrela, «ahotsik gabekoen ahots, eta ahots ozenegia dutenen aurkako ahots» (Jon Sobrino) bihurtu da.

Inoiz baino beharrezkoagoa da ahots hau, krisialdi ekonomiko larri batek harrapatua duen gizarte honetan. Egia ezkutatzea, finantza-botereen jardueraren eta halako horien eskakizunen mende jokatzen duten politikoen oinarri sendoenetako bat da. Krisialdia gezurretan bizi nahi digute.

Ahalegin guztia egiten dute, krisialdia bereziki eragin dutenen erantzukizuna ezkutatzeko, eta era zitalean egiten diote ezikusiaarena biktima ahulenen eta babesgabeen sufrimenduari. Premia larrikoa da krisialdi hau gizakoi egitea, arretaren zentrotzat sufritzen dutenen egia hartuz, lehen-lehenengo arreta halakoen egoerari, gero eta larriagoari, eskainiz.

Guztiei eskatzen ahal zaien lehen egia da hori, gizatasun gabeko izan nahi ez badugu. Beste guztien aurreko datua da. Ezin ohitu gara gizarte-zokoratzeri eta jenderik ahulena jotzen duen etsipenera. Jesusi jarraitu nahi diogunok entzun beharra dugu haren ahotsa eta, senetz bezala, azkenak diren alde jaiki beharra. «Egiarena den orok entzuten du nire ahotsa».

Jainkoaren herriaren otoitza

Zuzen diezazkiogun gure otoitzak Kristori, Bera baita gauza guztien Jauna eta Erregea:

- Elizako artzain eta kide guztiak saia daitezela beti gizadi osoa Jainkoarengana gerturatzen eta Kristoren gurutzeaz denei bake-bidea eskaintzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Erlijio eta kultura guztietan ezkutuan dagoen Ebanjelioaren haziak frutu eman eta ager dadin, guztiak ezagutu dezaten Kristo dela Jauna Jainko Aitaren aintzarako. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bekatuak, atsekabeak edo ezinak harrapatuta dauden guztiak Kristoren erreinuko askatasuna ezagutu dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gaur Kristo Erregearen festaburua ospatzen dugun guztiok izan dezagula egun batean zeruko oinordekotza, argiaren erreinuan. Eska diezaiogun Jaunari.

Guraso zaitugun Jainkoa, Zuk bidali duzu Zure Semea bere Erreinua gure artera ekartzera; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure argia Zure zerbitzuan errege izan gaitezen eta leialtasunez aldarrika dezagun Kristo dela diren guztien Erregea, hilen artetik lehenik piztua. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Betiko biziaren ogiaz janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, diren guztien Errege den Kristoren
esaneko izateaz pozten garenok
berarekin zeruko erreinuan betiko bizi gaitzela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**